

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

Tolosako Udaleko gobernantza, partaidetza eta gardentasunari buruzko ordenantzaren behin betiko onespena.

Udalbatzak, bi mila eta hogeita biko maiatzaren hogeita seian, Ohiko Osoko Bilkuran, aho batez behin betiko onarpena eman dio Tolosako Udaleko Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantzari, eta argitaratzen da horren testu osoa, Toki Araubidearen Oinarriak arau tzen dituen Legearen 70.2 artikulua aplikatuz. Horrela, Ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Tolosa, 2022ko maiatzaren 31.—Olatz Peon Ormazabal, alkatea. (4005)

Tolosako Udaleko gobernantza, partaidetza eta gardentasunari buruzko ordenantza.

ZIOEN AZALPENAK

Gero eta konplexuagoa den gizarte batean, gakoa elkarlanean dago. Elkarlanak, batetik, gardentasuna, informazioa eta parte hartzea politika publikoaren parte bilakatzea eta, bestetik, herritarren eta botere publikoen arteko hartu-eman handiagoa eskatzen du.

Herri bezala ditugun gizarte erronka konplexuei ikuspegi berrirarekin aurre egitea beharrezkoa da eta horregatik, elkarlan komunitarioaren bidetik jarduteaz gain, elkarrekin hausnartu eta esperimentatu beharra dago gizarte berrikuntzaren bidetik.

Horretarako, ezinbesteko balioak ditugu:

— Herrigintza eta garapen komunitarioa: Agenda publikoan herritarren parte-hartzea eta ahalduntzea sustatuz. Tolosako gizartearen beharrezkoak ulertuz, herritarren inplikaziotik gizarte erronkei helduz, eragile ezberdinen arteko elkarlanetik abiatuta.

— Lankidetzazko gobernantza: Erakunde, herritar eta gizarte antolatuen arteko lankidetzaren sarea indartuz bakarrik erantzun ahal izango diegulako gizarte gisa ditugun erronkei. Erakundeen eta gizarte antolatuen artean gobernantza eredu berriak esploratuz, gizarte berrikuntzatik ikuspegi berriak txertatuz.

— Gobernu irekia: Kalitate instituzionala indartzeko eta Udalaren eta herritarren artean esparru berri bat ezartzeko bidea da gobernu irekia.

Hauk dira gobernu irekia bermatzeko bitartekoak:

a) Gardentasuna sustatzea eta ordenantza honetan eta gardentasunaren arloko oinarriko legerian jasotako publikitate aktiboko betebeharrak betetzea.

b) Informazio publikoa eskuratzea gardentasunaren arloko oinarriko legeriak eta ordenantza honek aurreikusitakoarekin bat etorruta.

c) Informazio publikoa datu ireki gisa eskueran jartzea; hau da, halatan non datuak eskueran eta irisgarri egon ahal izan dai-

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Aprobación definitiva de la Ordenanza de Gobernanza, Participación y Transparencia del Ayuntamiento de Tolosa.

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria de veintiséis de mayo de dos mil veintidós, ha aprobado definitivamente por unanimidad la Ordenanza de Gobernanza, Participación y Transparencia del Ayuntamiento de Tolosa, cuyo texto íntegro se publica en aplicación del artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local. Así, la Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Tolosa, a 31 de mayo de 2022.—La alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal. (4005)

Ordenanza sobre gobernanza, participación y transparencia del Ayuntamiento de Tolosa.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La colaboración exige, por un lado, que la transparencia, la información y la participación se conviertan en parte de la política pública y, por otro, una mayor interrelación entre la ciudadanía y los poderes públicos.

Es necesario afrontar con nueva perspectiva los complejos retos sociales que tenemos como municipio y por ello, además de actuar por la vía de la colaboración comunitaria, hay que reflexionar y experimentar conjuntamente por la vía de la innovación social.

Para ello son imprescindibles los siguientes valores:

— Desarrollo urbano y comunitario: Promoviendo la participación y el empoderamiento de la ciudadanía en la agenda pública. Entendiendo las necesidades de la sociedad tolosarra, con la implicación ciudadana en los retos sociales, desde la colaboración entre diferentes agentes.

— Gobernanza colaborativa: Porque sólo fortaleciendo la red de colaboración entre instituciones, ciudadanía y sociedad organizada podremos dar respuesta a nuestros retos como sociedad. Explorando nuevos modelos de gobernanza entre las instituciones y la sociedad organizada, incorporando nuevos enfoques desde la innovación social.

— Gobierno abierto: El gobierno abierto es la vía para reforzar la calidad institucional y establecer un nuevo marco entre el Ayuntamiento y la ciudadanía.

Los medios para garantizar el gobierno abierto son:

a) Promover la transparencia y cumplir con las obligaciones de publicidad activa contenidas en esta ordenanza y en la legislación básica en materia de transparencia.

b) Acceso a la información pública, de acuerdo con lo previsto en la legislación básica en materia de transparencia y en esta ordenanza.

c) La puesta a disposición de la información pública en forma de datos abiertos, de forma que los datos puedan estar

tezen erreproduzio, aldaketa edo beste datu batzuekiko integrazioarako arazoizko kostuarekin, eta ahalbidetu dadin informazio hori pertsona orok askatasunez erabiltzea, berrerabiltzea eta birbanatzea, erabat errespetatuz pribatutasun, segurtasun edo jabetzagarriko eman daitezkeen murrizketak.

d) Herritarren partaidetzarako tresnak eta bideak garatzea.

d) Lankidetzaren Udalaren eta herritarren edo herritarren kolektiboen artean.

f) Kontuak ematea udal jardueren balantze ekonomikoa eta soziala ezagutu ahal izateko.

Hauek guztiak kontuan hartu dira ordenantza hau lantzerakoan, izan ere, udala da herritarrengandik gertuen dagoen erakunde publikoa, eta, horrexegatik, egoera pribilegiatuan dago balio guzti hauek aintzat hartu eta sustatzeko politika publikoak garatzeko ulean.

AURREKARIAK

Tolosako Udala ez da hutsetik hasten, ibilbide luzea du egi-na herritarren partaidetzaren esparruan, azken hamarkadan aurrera eramandako egitasmoen bitartez: partaidetza prozesu desberdinak, auzo galdeketak, Tolosatzen 2017-2027 plangintza estrategikoa, Tolosatzen aurrekontu partehartzaileak, Tolosatzen Eskola Irekia, Tolosako Jabetze Eskola, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen funtzionamendua diseinatzeko eta kudeatzeko parte-hartze prozesua, eta berriki martxan jarritako eta herri-tarrekin landutako Tolosatzen Aliantza dira horren adibide.

Aurrera eramandako egitasmo guztien asmoa gobernantza eredu berri baten eraikuntza ahalbidetzea izan da, herritarren eta udalaren arteko zubiak eraikitzen lagunduz eta udal politiken kudeaketa parte hartzaileagoei bidea emanez. Eta horixe da ordenantza honen helburua, esparru horiek guztiak zehaztu eta arautzea eta herritarren ahalduntzea sustatzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta herritar guztien irisgarritasun unibertsalaren printzipioetan oinarrituta.

Ekindako bideari jarraipena emateko eta gobernantza eredu berrietan sakontzeko mugari garrantzitsua da erregelamendu baten bidez zerbitzuak eta prozedurak zehaztea partaidetzari, gardentasunari, informazioari, kontu emateari eta herritarren ahalduntzeari begira.

Bide hau, baina, ez du bakarrik egin nahi Tolosako Udalak. Parte-hartze soziala eta tokiko elkarte eta kolektiboen jakintza eta praktikek Tolosako historiari egin dioten ekarpena aitortu nahi du Udalak, herri mugimendu bizia izan duen eta duen herria da Tolosa, eta, bereziki, mugimendu feministaren, emakume-taldearen eta genero-berdintasunaren alde lan egiten duten kolektiboen legatua aitortu nahi du, eta ikasgai horiek ordenantza honetan barneratu nahi izan ditu. Izan ere, prozesuaren hasieratik kontuan hartu nahi izan da genero ikuspegia eta emakumeek eremu publikoan parte hartzeko egiturazko oztopoak kontuan hartuz eta hauek eraisteko helburua ere baduelako ordenantza honek.

* Metodologia.

Lan-prozesuari dagokionez, eta koherentziaz, ordenantza-ren garapena metodologia parte-hartzaile eta kolaboratiboekin planteatu da hasieratik.

Udal barneko lanketaren gidaritzarako talde eragile bat sortu da berriaz, eta bertan egon dira alkatea, idazkaria, Komunitatea eta Gobernantza arloko zinegotzia eta teknikaria eta Berdintasun arloko teknikaria.

disponibles y accesibles con un coste razonable para la reproducción, modificación u otros datos, y se permita su libre utilización, reutilización y redistribución por toda persona, con pleno respeto a las restricciones de privacidad, seguridad y o propiedad.

d) Desarrollar instrumentos y cauces de participación ciudadana.

e) Cooperación entre el Ayuntamiento y la ciudadanía o entre colectivos ciudadanos.

f) Rendición de cuentas para conocer el balance económico y social de las actividades municipales.

Todos ellos han sido tenidos en cuenta a la hora de elaborar esta ordenanza, ya que el ayuntamiento es el organismo público más cercano a la ciudadanía, por lo que se encuentra en una situación privilegiada a la hora de desarrollar políticas públicas que tengan en cuenta y fomenten todos estos valores.

ANTECEDENTES

El Ayuntamiento de Tolosa no empieza de cero, tiene una larga trayectoria en el ámbito de la participación ciudadana a través de los diferentes procesos llevados a cabo en la última década: son muestra de ello los procesos de participación, las encuestas realizadas en los barrios, la planificación estratégica Tolosatzen 2017-2027, los presupuestos participativos de Tolosatzen, la Escuela Abierta de Tolosatzen, la Escuela de Empoderamiento de Tolosa, el proceso participativo para el diseño y gestión del funcionamiento de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea, y la Alianza Tolosatzen llevada a cabo con la ciudadanía.

La intención de todos los proyectos llevados a cabo ha sido posibilitar la construcción de un nuevo modelo de gobernanza, ayudando a construir puentes entre la ciudadanía y el ayuntamiento y dando paso a una gestión más participativa de las políticas municipales. Y ese es el objetivo de esta ordenanza, definir y regular todos estos ámbitos y promover el empoderamiento de la ciudadanía en base a los principios de igualdad entre hombres y mujeres y de accesibilidad universal de toda la ciudadanía.

Un hito importante para dar continuidad al camino emprendido y profundizar en los nuevos modelos de gobernanza es definir mediante un reglamento los servicios y procedimientos de cara a la participación, transparencia, información, rendición de cuentas y empoderamiento de la ciudadanía.

Sin embargo, el Ayuntamiento de Tolosa no quiere hacer este camino solo. El Ayuntamiento quiere reconocer la participación social y la aportación que los saberes y prácticas de las asociaciones y colectivos locales han hecho a la historia de Tolosa. Es un municipio que ha tenido y tiene un movimiento popular vivo y, especialmente, quiere reconocer el legado del movimiento feminista, de los grupos de mujeres y de los colectivos que trabajan a favor de la igualdad de género, y ha querido incluir estas materias en la presente ordenanza. De hecho, desde el inicio del proceso se ha pretendido tener en cuenta la perspectiva de género y los obstáculos estructurales para la participación de las mujeres en el ámbito público, ya que esta ordenanza tiene también como objetivo la demolición de dichos obstáculos.

* Metodología.

En cuanto al proceso de trabajo, y en coherencia con el propósito, el desarrollo de la ordenanza se ha planteado desde el principio con una metodología participativa y colaborativa.

Se ha creado un grupo motor específico para el liderazgo del trabajo interno del Ayuntamiento, en el que han estado presentes la alcaldesa, la secretaria, el concejal y el técnico del área de Comunidad y Gobernanza y la técnica del área de Igualdad.

Era berean, epe luzeko begiradarekin lan egin nahi izan da eta horretarako ezinbestekoa izan da udalean ordezkari politikoak duten alderdi guztietako ordezkariekin elkarlanean jardutea, ordenantza honetan jasotzen denak ikuspuntu politiko guztien oniritzia izan dezan. Helburu horrekin hainbat elkarlan bile- ra egin dira prozesuan zehar.

Honekin aski ez, eta udal langile eta teknikariek ere kontraste bilerak egin dira behin eduki guztiaren lehen zirriborroa prestatu denean.

Kanpora begirakoa herritarrekin egindako kontrasteen bidez egin da. Behin zirriborroa landuta herritarrekin partekatu eta lantzeko bi lan saio ireki egin dira edukia ezagutzera emateko eta proposamenak eta hobekuntzak jasotzeko. Aurrez aurreko saioez gain, telematikoki ekarpenak egiteko aukera zabaldu da eta jasotako ekarpenen guztien azterketa burutu ondoren, azterketaren emaitzaren deboluzioa burutu da eta beharrezko aldaketak erregelamenduan txertatu dira behin betiko ordenantza idazteko.

* Ildo berritzaile nagusiak.

Ordenantza honen lan ildo berritzaileak bi dira nagusiki:

Genero ikuspegiaren lanketa: horretarako, bi bide erabili dira; prozesuaren abiatu aurretik proposamenaren lehen kontrastea egin zen Tolosako Mugimendu Feministako kide batzuekin, eta, ondoren, dokumentua berdintasun saileko teknikariek elkarlanean landu da bilera monografikoen bidez, estrategiak adosteko eta puntu zehatzak lantzeko.

Izan ere, Tolosako Udala kontziente da emakumeek oztopak izan ohi dituztela gizonen baldintza beretan espazio publikoan parte hartzeko, hainbat faktore direla eta; hala nola, generoaren eraikuntza soziala, lanaren sexu-banaketa, denboraren erabilera desberdina, eta emakumeek zaintza-lanetan ematen duten denbora handiagoa gizonekin alderatuz. Ondorioz, emakumeen benetako parte-hartze eraginkorra bermatu eta sustatzeko, ezinbestekotzat jo da genero-berdintasuna zeharkakotasunez lantzea ordenantza garatzeko eta ebaluatzeko prozesu osoan zehar.

Gainera, kontuan hartu behar da toki-administrazioek berdintasun-printzipioa txertatu behar dutela beren arau- eta administrazio-jardueran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera. Lege horren 19. artikuluan, administrazioei eskatzen zaie generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko, administrazio-arau edo -egintza bat egin aurretik. Horregatik, Tolosako Udalak, ordenantza hau onartu aurretik, udalaz kanpoko erakunde independente bati agindu dio erregelamendu hau aztertzeko eta genero eraginaren berri emateko. Beraz, txosten honen aholkuak jarraituz, ordenantza honek jasoa du azterketa horren oniritzia. Txosten horrek eragin positiboa aurreikusten du emakumeen eta gizonen berdintasunean; izan ere, ordenantzak esplizituki jasotzen du helburu hori, berdintasunaren arloko zeharkako aginduak betetzen direla ziurtatzen du eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurri espezifikoak proposatzen ditu.

Era berean, ertzetako begirada honi esker, ikuspegia zabaldu egin da eta espazio publikoan azpi-ordezkatuta egon ohi diren bestelako giza taldeen parte hartzeko bideak kanalizatu nahi izan dira. Horretarako, begirada interseksionala lagungarria izan da: adina, hizkuntza, klase soziala, jatorria, sexu- eta genero-aniztasuna, aniztasun funtzionala... ordenantza honen bidez hauek guztiak kontuan hartuko dituen parte hartze eredu inklusibo eta eraldatzailearen oinarriak finkatu nahi izan dira, kontuan hartuta honek bide bat markatzen duela eta, egun batetik bestera lortuko ez bada ere, norabidea markatzeko lagungarria izango zaigula.

Asimismo, se ha querido trabajar con una mirada a largo plazo y para ello ha sido imprescindible colaborar con representantes de todos los partidos con representación política en el ayuntamiento, para que todo lo que se recoge en esta ordenanza tenga el visto bueno de todos los puntos de vista políticos. Con este objetivo se han realizado varias reuniones de colaboración a lo largo del proceso.

Del mismo modo, también se han mantenido reuniones de contraste con el personal y técnicas/os municipales una vez se ha elaborado el primer borrador de todo el contenido.

La mirada al exterior se ha realizado a través de contrastes con la ciudadanía. Una vez elaborado el borrador se han abierto dos sesiones de trabajo para compartir y trabajar con la ciudadanía, para dar a conocer su contenido y recoger propuestas y mejoras. Además de las sesiones presenciales, se ha abierto la posibilidad de realizar aportaciones telemáticas y una vez realizado el análisis de todas las aportaciones recibidas, se ha realizado la devolución del resultado del estudio y se han incorporado los cambios necesarios a la ordenanza para redactar la ordenanza definitiva.

* Principales innovaciones.

Las líneas de trabajo innovadoras de esta ordenanza son principalmente dos:

La evaluación de la perspectiva de género, a través de dos vías: antes de comenzar el proceso se realizó el primer contraste de la propuesta con algunos de los miembros del Movimiento Feminista de Tolosa, y posteriormente se ha trabajado el documento en colaboración con las técnicas del área de igualdad a través de reuniones monográficas para consensuar estrategias y trabajar puntos concretos.

De hecho, el Ayuntamiento de Tolosa es consciente de que las mujeres suelen tener obstáculos para participar en el espacio público en las mismas condiciones que los hombres, por diversos factores, tales como la construcción social del género, la división sexual del trabajo, el uso desigual del tiempo y el mayor tiempo de dedicación de las mujeres al cuidado respecto a los hombres. En consecuencia, para garantizar y promover una participación real y efectiva de las mujeres, se ha considerado imprescindible trabajar la igualdad de género de forma transversal durante todo el proceso de desarrollo y evaluación de la ordenanza.

Además, hay que tener en cuenta que las administraciones locales deben incorporar el principio de igualdad en su actividad normativa y administrativa, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Hombres y Mujeres. En su artículo 19 se insta a las administraciones a realizar una evaluación previa del impacto en función del género antes de elaborar una norma o acto administrativo. Por ello, el Ayuntamiento de Tolosa, antes de la aprobación de esta ordenanza, ha encargado a una entidad independiente no municipal que estudie esta ordenanza, e informe del impacto de género. Por tanto, siguiendo las recomendaciones de este informe, la presente ordenanza ha recibido el visto bueno de dicho estudio. Este informe prevé un impacto positivo en la igualdad de mujeres y hombres, ya que la ordenanza recoge explícitamente este objetivo, asegura el cumplimiento de los mandatos transversales en materia de igualdad, y propone medidas específicas para promover la igualdad de mujeres y hombres.

Asimismo, gracias a esa mirada, se ha podido ampliar la visión y canalizar los cauces de participación de otros grupos que suelen estar subrepresentados en el espacio público. Para ello, la mirada interseccional ha sido de gran ayuda a la hora de contemplar diversas características: edad, lengua, clase social, origen, diversidad sexual y de género, diversidad funcional... Con esta ordenanza se pretende sentar las bases de un modelo de participación inclusivo y transformador que tenga en cuenta todas estas cuestiones. Todo ello representará un camino y, aunque nada se consigue de un día para otro, nos ayudará a marcar el rumbo.

Zentzu honetan, aipagarria ere bada euskararen normalizazioaren bidean ordenantza honek egin nahi izan duen ahalegina eta informazioaren kudeaketa oro eta ekitaldi publikoen bidez edo partaidetza prozesu orotan euskal hiztunen hizkuntza eskubideak bermatzeko egin den ahalegina.

Era berean, herritar guztien aniztasun funtzionalak kontuan hartuta, pertsonen parte hartzea oztopatzen dituzten mugak ezabatze alderako neurriak hartu ditu Tolosako udalak; hala nola, gor-mutuentzako interprete zerbitzuak aurrez aurreko harremanetan zein webguneko informazioan.

Bigarren ildo herritzailea garapen komunitarioaren ikuspegi barnebiltzea izan da: partaidetza arautu ohi duten ordenantzetan elkartegintzaren babesa eta laguntza jaso ohi dira. Tolosako Udalak hori jaso eta zabaldu nahi izan du, bi aspektu berri gehituz: herritarren trebakuntza eta formazioa, alde batetik, Tolosako Eskola Irekiaren bidez gauzatzen ari dena 2020tik, eta elkarlan publiko sozialaren bidez, bestetik. Kasu honetan, gai publikoei buruzko kudeaketa eta inplikazio modu berriak bilatu nahi dira, komunitatea eta zibilaren inplikazioa eta elkarlana biltuz guztion ondare diren gaien kudeaketari dagokionez.

* Egitura.

Ordenantzaren edukari erreparatuta, erregelamendu honetan jaso dira gardentasuna eta herritarrekiko informazioaren kanalizazioa, herritarren partehartzearen aukerak eta komunitatearen ahalduntze eta garapenaren biderako aukerak.

Lehen titulua da «Gardentasuna eta informazioarekin kudeaketa Tolosako udalean». Lehen atal honetan, informazio publikoa eskuratzeko bideak arautu dira eta herritarrek beren eskubideak gauzatzeko duten gaitasuna aztertu da.

Tolosako herritarrek udalarekin harremanetan jartzeko dituzten informazio eta komunikazio bideak ere zehaztu eta arautu dira.

Bigarren tituluak «Herritarren partaidetza artikulatzeko bideak» du izena. Atal honetan tolosarrek parte hartzeko dituzten eskubideak, Tolosako Udalak parte hartzea bideratzeko eratuta dituen organoak eta espazioak, herritarren ekimen bidezko egitasmoak gauzatzeko prozedurak, parte hartze prozesuek bete beharreko baldintzak eta herri kontsultak gauzatu ahal izateko prozedurak zehaztu dira.

Hirugarren eta azken tituluak, «Komunitatearen garapena bultzatzeko egiturak» du izena. Bertan, ulertzen da komunitatearen garapenerako eta kalitatezko partaidetza eman dadin, herritarren ahalduntzea, trebakuntza eta formazioa ezinbestekoak direla, herritar aktibo eta antolatuen elkartegintza sare osasuntsuarekin batera.

Horretarako, egiturak sortu behar dira eta herriko elkarte sarea sustatu, herriko elkarte eta herriko kolektibo desberdinei esker baita Tolosa herri aktiboa eta parte-hartzailea, eta, hortaz, herri ondarea diren heinean horiek guztiak sostengatzeko baliabideak arautzea eta lankidetzako publiko-soziala sustatzeko borondatea arautu nahi izan du Udalak atal honen bidez. Herri modura, bakoitza bere eremutik, baina elkarlanean, elkarren arteko aliantzatik, etorkizuneko erronkei aurre egiteko modu bateratuan.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

1. Ordenantza honen xedea da Tolosako Udalaren eta herritarren arteko harremanak eta parte hartzeko bideak arautzeko modu, bitarteko eta prozedurak zehaztea, eta, horrenbestez, herritarrek ardatz dituen gobernantza ereduari sostengua ematea.

En este sentido, es también reseñable el esfuerzo que esta ordenanza ha pretendido realizar en el camino de la normalización del euskera, y el esfuerzo que se ha realizado para garantizar los derechos lingüísticos de las y los vascoparlantes a través de toda gestión de la información y a través de actos públicos o en todo proceso participativo.

Asimismo, teniendo en cuenta las diversidades funcionales de toda la ciudadanía, el Ayuntamiento de Tolosa ha adoptado medidas para eliminar las limitaciones que dificultan la participación de las personas, como los servicios de intérpretes para sordomudos tanto en el contacto presencial como en la información de la web.

La segunda línea innovadora ha sido la incorporación de la perspectiva del desarrollo comunitario: las ordenanzas reguladoras de la participación reciben el apoyo y la ayuda del asociacionismo. El Ayuntamiento de Tolosa ha querido recogerlo y ampliarlo, añadiendo dos nuevos aspectos: por un lado, la formación y capacitación ciudadana, que se viene llevando a cabo a través de la Escuela Abierta de Tolosa desde 2020, y por otro, la colaboración pública social. En este caso, se trata de encontrar nuevas formas de gestión e implicación sobre los asuntos públicos, buscando la implicación y colaboración de la comunidad y la sociedad civil en la gestión de los temas que son patrimonio de todas y todos.

* Estructura.

Atendiendo al contenido de la ordenanza, esta ordenanza recoge la transparencia y la canalización de la información con la ciudadanía, las posibilidades de participación ciudadana y de empoderamiento y desarrollo comunitario.

El primer título es «Transparencia y gestión de la información en el Ayuntamiento de Tolosa». En este primer apartado se regulan los canales de acceso a la información pública y se analiza la capacidad de la ciudadanía para ejercer sus derechos.

También se han definido y regulado los canales de información y comunicación de los que disponen las y los tolosarras para ponerse en contacto con el ayuntamiento.

El título segundo dice así: «Cauces para articular la participación ciudadana». En este apartado se detallan los derechos de participación de las y los tolosarras, los órganos y espacios que el Ayuntamiento de Tolosa tiene constituidos para canalizar la participación, los procedimientos para llevar a cabo proyectos de iniciativa ciudadana, los requisitos que deben cumplir los procesos de participación y los procedimientos para poder llevar a cabo consultas populares.

El tercer y último título se denomina «Estructuras para impulsar el desarrollo comunitario». En él se entiende que para el desarrollo de la comunidad y la participación de calidad, el empoderamiento, la formación y la capacitación de la ciudadanía son imprescindibles, junto con un tejido asociativo sano de ciudadanía activa y organizada.

Para ello, es necesario crear estructuras y fomentar el tejido asociativo local, ya que Tolosa es un pueblo activo y participativo gracias a las diferentes asociaciones y colectivos del municipio, por lo que el Ayuntamiento ha querido reglamentar a través de este apartado la regulación de los recursos para sustentarlos como patrimonio popular y la voluntad de fomentar la colaboración público-social. Y todo ello como pueblo, cada cual desde su ámbito, pero colaborando, desde la alianza mutua, de forma conjunta para afrontar los retos del futuro.

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

1. Es objeto de la presente ordenanza la determinación de las formas, medios y procedimientos para regular las relaciones y cauces de participación entre el Ayuntamiento de Tolosa y la ciudadanía, dando soporte al modelo de gobernanza centrado en la ciudadanía.

2. Horrekin batera, Tolosako udalak gardentasun arloa betetzea eta herritarrekiko informazio eta komunikaziorako egiturak zehaztea du xede.

3. Ordenantza honetan ere zehazten dira Tolosako komunitatearen garapenerako funtsezkoak diren arloetarako moduak, bitartekoak eta prozedurak: hala nola, gizabanakoen eta giza taldeen ahalduntzeari buruzkoak, elkartegintzaren sostenguari buruzkoak eta elkarlan publiko-sozialerako markoak eta bitartekoak.

4. Azkenik, ordenantza honetan jasotakoak printzipio hauean oinarrituta daude: interes komunaren lehenetasuna, aniztasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, inklusioa, irisgarritasun unibertsala, datu pertsonalen babesa, eskuragarritasuna, gardentasuna, ulergarritasuna, publizitate aktiboa eta kontuak ematea.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

1. Gardentasunari dagokionean, Tolosako udalari berari eragiten dio, bai eta bere menpeko erakunde autonomoei eta udal titulartasunpeko sozietateei ere, barne egituran izan dezakeen eraginarengatik.

2. Gainerako alorrei dagokienean, ordenantza honen aplikazio esparrukoak dira, kasu bakoitzean ezarritako berezitasunekin, Tolosako biztanleak eta bertan jarduten duten herritarren elkarte eta kolektiboak.

Arau honetan arauturiko eskubide batzuk erabili ahal izateko, udalerriko biztanle izatea eskatuko da, edo herritarren elkarte, kolektiboen eta erakunde juridikoen kasuan, helbidea, egoitza edo jarduera esparrua Tolosan dutela egiaztatzea, eta beharreko ordezkagarritasuna izatea.

3. Ordenantza honen ondorioetarako, bertako biztanleztatik hartuko da Udaleko biztanleen erroldan inskribatua dagoen pertsona oro. Halaber, Tolosako herritartzat hartuko da udalerrian bizi den pertsona oro.

4. Arau honen ondorioetarako, herritarren elkarte edo kolektibotzat hartuko da helbide soziala, egoitza edo jarduera esparrua Tolosako udalerrian duen oro. Halaber, arau honetako eskubideak egikaritzeko, herritarren elkarte eta kolektiboek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bete beharko dute.

5. Arau honen ondorioetarako, erakunde juridikotzat hartuko da helbide soziala, egoitza edo jarduera esparrua Tolosako udalerrian duen entitate oro.

6. Udalerrian erroldatuta ez dauden pertsonak, kolektiboak edo langileak ere parte hartu ahal izango dute aurrera eramaten diren parte hartze prozesuetan, kasu bakoitzerako finkatuko diren baldintzen arabera.

3. artikulua. Helburuak.

Honako helburu eta jarduera printzipio hauek ditu ordenantza honek:

1. Gobernantza onaren bidean zerbitzuak eta prozedurak definitzea partaidetza, gardentasuna eta informazioa eta ahalduntze eta trebakuntzaren bidean.

2. Partaidetzarako ordenantza esparrua zehaztea.

3. Herritarren eskubideak bermatzea.

4. Organo iraunkorren izaera eta funtzionamendua gaurkotzea Tolosako udalaren antolaketa instituzionala kontuan hartuz.

5. Partaidetzan oinarritutako prozesuen kalitatea bermatzea.

6. Lankidetzarako publiko-sozialeko formulak zabaltzea eta sendotzea.

2. Asimismo, el Ayuntamiento de Tolosa tiene por objeto cumplir con la normativa vigente en el ámbito de transparencia y definir las vías de comunicación e información para con la ciudadanía.

3. En la presente ordenanza se concretan también las formas, medios y procedimientos para el desarrollo comunitario de Tolosa, tales como las relativas al empoderamiento individual y colectivo, el apoyo al asociacionismo y los marcos y medios de colaboración público-social.

4. Por último, los contenidos de esta ordenanza se basan en los principios de prioridad del interés común, diversidad, igualdad y no discriminación, inclusión, accesibilidad universal, protección de datos personales, transparencia, comprensibilidad, publicidad activa y rendición de cuentas.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

1. En materia de transparencia, afecta al propio ayuntamiento de Tolosa, así como a los organismos autónomos y sociedades de titularidad municipal dependientes del mismo, por su posible incidencia en la estructura interna.

2. En lo que respecta al resto de las áreas, la presente ordenanza tiene como ámbito de aplicación, con las peculiaridades que en cada caso se establezcan, a la población de Tolosa y a las asociaciones y colectivos ciudadanos que actúan en el municipio.

Para el ejercicio de algunos de los derechos regulados en esta norma se exigirá ser vecino o vecina del municipio o, en el caso de asociaciones ciudadanas, colectivos y entidades jurídicas, acreditar su domicilio o ámbito de actuación en Tolosa, y contar con cierta representatividad pública.

3. A los efectos de esta ordenanza, se entenderá por habitante de Tolosa a toda persona inscrita en el Padrón Municipal de Habitantes. Asimismo, se considerará que toda persona que resida en el municipio es ciudadana de Tolosa.

4. A los efectos de esta norma, se entenderá por asociación o colectivo a todo colectivo que tenga su domicilio social, domicilio o ámbito de actuación en el municipio de Tolosa. Asimismo, para el ejercicio de los derechos previstos en esta norma, las asociaciones y colectivos deberán respetar el principio de igualdad entre mujeres y hombres.

5. A los efectos de esta norma, se entenderá por entidad jurídica toda entidad que tenga su domicilio social, domicilio o ámbito de actuación en el municipio de Tolosa.

6. Las personas, colectivos o personas trabajadoras no empadronadas en el municipio podrán participar en los procesos participativos que se lleven a cabo en los términos que en cada caso se determinen.

Artículo 3. Objetivos.

Los objetivos y principios de actuación de esta ordenanza son los siguientes:

1. Definir servicios y procedimientos en el camino de la buena gobernanza hacia la participación, la transparencia, la información, el empoderamiento y la capacitación de la ciudadanía.

2. Determinar el marco normativo de la participación ciudadana de Tolosa.

3. Garantizar los derechos de la ciudadanía de Tolosa.

4. Actualizar la naturaleza y funcionamiento de los órganos permanentes teniendo en cuenta la organización institucional del Ayuntamiento de Tolosa.

5. Garantizar la calidad de los procesos participativos que se lleven a cabo en la localidad.

6. Ampliar y consolidar nuevas fórmulas para la colaboración público-social.

7. Gardentasun eta komunikazio eskubideak eta prozedurak definitzea.

8. Udal teknikari eta politikarien prestakuntza eta trebatuntza aurreratzea.

9. Herritarrak eta eragileen ahalduntzean eragitea udalarekin izan behar dituzten jardueren inguruan.

10. Ordenantza hau eratzeko partaidetza prozesuan zehar eta ordenantza honetan bertan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta interseksionalitatea aintzat izatea eta bere tresna eta prozedura desberdinen baitan, emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua bermatzeko neurriak edota mekanismoak aurreikustea, modu errealean eta eraginkortasunez aplikatuak izan daitezten.

Zeharkako helburuak:

1. Tolosako udalean partaidetza kultura garatzeko beharrezko aldaketak sartzea.

2. Partaidetzaren eragina behartzea udal politiketan eta erabaki hartzean.

3. Gobernantza publikoan berrikuntza sustatzea ondorengo lau ardatzetan:

- Berrikuntza demokratikoa.
- Berrikuntza soziala.
- Berrikuntza zerbitzu publikoetan.
- Berrikuntza metodologikoa.

4. *artikulua. Jarduteko printzipio etikoak Tolosako udalean.*

Tolosako Udalaren zerbitzura ari diren pertsona guztiek, eta bereziki, dagozkien udal organoetan erabakiak hartzeko gaitasuna dutenek, ondoko jokaera printzipio hauen arabera jardungo dute: zintotasuna, eredugarritasuna, inpartzialtasuna, gardentasuna, zuzentasuna, berdintasuna, errespetua, zerbitzu publikoarekiko dedikazioa eta kontuak ematea. Funtzio publikoaren eta toki erregimenaren alorreko legeriak eta gobernu egokiaren, gardentasunaren eta herritarren parte hartzearen alorreko araudi espezifiko osoak haiei buruz egiten duen definitzioaren arabera interpretatuko dira printzipio etiko horiek.

I. TITULUA

GARDENTASUNA ETA INFORMAZIOAREN KUDEAKETA TOLOSAKO UDALEAN

I. KAPITULUA. GARDENTASUNA EKINTZA PUBLIKOAN

5. *artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.*

1. Informazio publikoa da toki-erakundeen esku dagoen informazio oro, beren eginkizunen barruan landu edo eskuratu dutena, edozein dela ere informazio horren euskarrria eta adierazpidea.

2. Tolosako Udalak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatuko du toki erregimeneko legeriak eta gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu egokiari buruzko legeria espezifikoak jasotako baldintzetan.

3. Herritar guztiek dute informazio publikoa jasotzeko eskubidea, dagokion eskubidea egin ondoren eta baita informazio hori jasotzeko hizkuntza hautatzeko eskubidea ere, EAEko bi hizkuntza ofizialetako batean.

4. Informazioa eskuratzeko eskaeren erregistroa eraman-go du Udalak. Informazio publikoaren eta gardentasunaren arloan sustapen eta koordinazio eskumenak dituen sail edo udal zerbitzuaren mende egongo da erregistroa.

7. Definición de los derechos y procedimientos de transparencia y comunicación.

8. Avanzar en la formación y capacitación del personal técnico y político municipal.

9. Influir en el empoderamiento de la ciudadanía y de agentes sociales sobre las actividades que deben tener con el ayuntamiento.

10. Prever medidas y/o mecanismos que garanticen una participación equilibrada entre mujeres y hombres en el proceso participativo de la elaboración de la presente ordenanza, así como la igualdad e interseccionalidad entre mujeres y hombres en la misma y en el marco de sus diferentes instrumentos y procedimientos, para que sean aplicados de forma real y efectiva.

Objetivos transversales:

1. Introducir en el Ayuntamiento de Tolosa las modificaciones necesarias para el desarrollo de la cultura participativa.

2. Forzar el impacto de la participación en las políticas municipales y en la toma de decisiones.

3. Promover la innovación en la gobernanza pública en cuatro ejes:

- Innovación democrática.
- Innovación social.
- Innovación en los servicios públicos.
- Innovación metodológica.

Artículo 4. Principios éticos de actuación en el Ayuntamiento de Tolosa.

Todas las personas al servicio del Ayuntamiento de Tolosa, y en particular las que tengan capacidad de decisión en los órganos municipales correspondientes, actuarán de acuerdo con los principios de honestidad, ejemplaridad, imparcialidad, transparencia, equidad, igualdad, respeto, dedicación al servicio público y rendición de cuentas. Estos principios éticos se interpretarán de acuerdo con la definición que de ellos haga la legislación en materia de función pública y régimen local, y toda la normativa específica en materia de buen gobierno, transparencia y participación ciudadana.

TÍTULO I

TRANSPARENCIA Y GESTIÓN DE LA INFORMACIÓN EN EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

CAPÍTULO I. TRANSPARENCIA EN LA ACCIÓN PÚBLICA

Artículo 5. Derecho de acceso a la información pública.

1. Se entiende por información pública toda información que obre en poder de las entidades locales y que haya sido elaborada o adquirida en el ejercicio de sus funciones, cualquiera que sea su soporte y forma de expresión.

2. El Ayuntamiento de Tolosa garantizará el derecho de acceso a la información pública en los términos recogidos en la legislación de régimen local y en la legislación específica sobre transparencia, acceso a la información y buen gobierno.

3. La ciudadanía tiene el derecho a recibir información pública, previa la correspondiente solicitud, así como a elegir el idioma en el que recibir dicha información, en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la CAPV.

4. El Ayuntamiento llevará un registro de solicitudes de acceso a la información. El registro dependerá del departamento o servicio municipal competente en materia de promoción y coordinación en materia de información pública y transparencia.

5. Era berean, gardentasunaren alorrean eskumena duen sail edo udal zerbitzuak urteko txostena egingo du, eta bertan, aurkeztutako eskaeren kopurua aipatuko du eta eskaera horiek nola erabaki diren zehatz azalduko du (zenbakia eta onartzeko, zati batean onartzeko, atzera botatzeko eta ez onartzeko arrazoiak); era berean, eskatzaileen profila azalduko du, sexua eta komunikazioan erabili duten hizkuntza barne.

6. artikulua. Gardentasuna.

1. Gardentasuna da herritarrei Tolosako udalaren esku dagoen informazio publikoa erraz ulertzeko moduan eskuratzeko bidea ematea.

2. Gardentasunak udaleko jarduera publikoa ikustaraztea du helburu: antolaketari, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari, araudi erregulatzailerari eta jarduera-datuei buruzko informazioa. Hartara, herritarrek jakin ahal izango dute Udala nola gobernatu eta administratzen den, zer erabaki, nola eta zergatik hartu diren eta baliabide publikoak zertan erabiltzen diren, jarduera publikoa ebaluatu ahal izateko eta boterea arduraz baliatzen dela bermatzeko. Horrez gain, informazioa eta gardentasuna funtsezko baldintza dira herritarren partaidetzarako.

3. Gardentasuna bi modura ahalbidetu daiteke: publikitate aktiboaren bitartez eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzearen bitartez.

4. Gardentasuna bermatzeko, Tolosako Udalak bere jardueira ezagutzera emango du, betiere, aplikagarria zaion legeriak ezarritako esparru eta mugen barruan. Udal sail bakoitzak ziurtatu beharko du argitaratzen duen informazioa eguneratuta dagoela uneoro.

5. Herritarren eskura jartzen den informazioa kalitate handienekoa izan dadin honako printzipioak zainduko ditu Tolosako Udalak: informazioa egiazkoa, objektiboa, argia, koherentea, denboran egokia, materialki nabarmena, egituratua, zehatza, ulergarria, osoa, segurua, erraz erabiltzeko modukoa, irisgarria, kanal anitzekoa, konparagarria, formatu anitzekoa, eta elkarrengingarria eta berrerabilgarria izatea, legeak ezartzen duen baldintzetan. Informazio horrek ez du hizkuntza sexista erabiliko eta Tolosako Udalak ezarritako dituen hizkuntza irizpideak beteko ditu.

6. Eten digitala gainditzeko, egiturazko hainbat arrazoi medio direla eta; hala nola, adina, generoa, klasea edo jatorria, teknologiarako irisgarritasun neurriak ezartzea sustatuko da, eta, posible den neurrian, ordezko bitartekoak jartzea aztertuko da.

7. Tolosako Udalak gardentasunerako estrategia definituko du eta gardentasun-betebeharren jarraipena eta kontrola egingo du.

7. artikulua. Publizitate aktiboa.

1. Publizitate aktiboa herritarren interesekoa den informazio publiko guztia aldizka, eguneratuta eta modu ulergarrian publiko egitean datza, konpromisoak nola betetzen dituen modu frogagarrian ezagutaraziz eta tokiko botere publikoek herritarrei kontuak ematea gauzatuz, komunikazio-interakzioko prozesua sustatu ahal izateko.

2. Udalak modu jarraituan, sortu ahala, zabalduko du herritarren interesekoa den informazio garrantzitsuena Interneteko atariaren, udal informazio zerbitzuen edota administrazio zerbitzuen bidez. Hori guztia herritarrek jakin dezaten tokiko gobernu eta administrazioa nola antolatzen diren, zein eginkizun dituen, bere erabakietan zein esparru eta politika lehenesten dituen, eta tokiko zerbitzu publikoen kudeaketan baliabideak nola esleitzen dituen.

3. Garrantzi publikoko eta herritarren interesekotzat hartzen da gutxienez toki erregimeneko araudiak eta gardentasunaren alorreko legeria espezifikokoak jasotzen duen informazio

5. Asimismo, el departamento o servicio municipal competente en materia de transparencia elaborará un informe anual en el que se hará constar el número de solicitudes presentadas y la forma concreta en que se han resuelto (número y motivos de admisión, aceptación parcial, rechazo e inadmisión), así como el perfil de las personas solicitantes, incluyendo el sexo y el idioma en el que se han solicitado.

Artículo 6. Transparencia.

1. La transparencia consiste en facilitar a la ciudadanía el acceso fácilmente comprensible a la información pública que obra en poder del Ayuntamiento de Tolosa.

2. La transparencia tiene por objeto visibilizar la actividad pública municipal: información sobre organización, gestión económico-presupuestaria, normativa reguladora y datos de actuación. De este modo, la ciudadanía podrá conocer cómo se goberna y administra el Ayuntamiento, qué decisiones se han tomado, cómo y por qué y en qué se utilizan los recursos públicos para poder evaluar la actividad pública y garantizar el ejercicio responsable del poder. Además, la información y la transparencia son un requisito fundamental para la participación ciudadana.

3. La transparencia se puede posibilitar mediante la publicidad activa y el ejercicio del derecho de acceso a la información pública.

4. Con el fin de garantizar la transparencia, el Ayuntamiento de Tolosa dará a conocer su actividad dentro de los ámbitos y límites establecidos por la legislación que le sea de aplicación. Cada departamento municipal deberá asegurarse de que la información que publica esté actualizada en todo momento.

5. El Ayuntamiento de Tolosa velará por que la información que se ponga a disposición de la ciudadanía sea de la máxima calidad bajo los principios de veracidad, objetividad, claridad, coherencia, adecuación en el tiempo, materialmente relevante, estructurada, precisa, comprensible, completa, segura, fácilmente accesible, multicanal, comparable, multiformato, interoperable y reutilizable en los términos que establece la ley. Esta información no utilizará un lenguaje sexista y cumplirá los criterios lingüísticos establecidos por el Ayuntamiento de Tolosa.

6. Para superar la brecha digital, por diferentes razones estructurales como edad, sexo, clase u origen, se promoverá la implantación de medidas de accesibilidad a la tecnología y, en la medida de lo posible, se analizará en cada caso qué canal utilizar para la correcta difusión de la información.

7. El Ayuntamiento de Tolosa definirá su propia estrategia de transparencia y realizará el seguimiento y control de sus obligaciones en materia de transparencia.

Artículo 7. Publicidad activa.

1. La publicidad activa consiste en la publicación periódica, actualizada y comprensible de toda la información pública de interés para la ciudadanía, dando a conocer fehacientemente el cumplimiento de sus compromisos y llevando a cabo la rendición de cuentas a la ciudadanía por parte de los poderes públicos locales, con el fin de promover un proceso de interacción comunicativa.

2. El Ayuntamiento difundirá de forma continuada la información más relevante de interés para la ciudadanía a través del portal de Internet, de los servicios de información municipales o de los servicios administrativos. Todo ello con el fin de que la ciudadanía conozca cómo se organiza el gobierno y la administración local, qué funciones tiene, qué ámbitos y políticas prioriza en sus decisiones y cómo asigna recursos en la gestión de los servicios públicos locales.

3. Se considera de relevancia pública e interés para la ciudadanía, al menos, toda la información contenida en la normativa de régimen local y en la legislación específica en materia de

guztia, eta baita udal arduradunek, ofizioz edo herritarren interesak ordezkatzen dituzten erakundeek eskatuta, egokitzat hartzen duten informazio guztia.

- a. Udalari eta antolamenduari buruzko informazioa.
- b. Informazio juridiko-normatiboa.
- c. Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa.
- d. Kudeaketa publikoari buruzko informazioa.
- e. Toki-erakundeen zerbitzurako langileei buruzko informazioa.
- f. Informazio ekonomiko-finantzariora eta aurrekontuei buruzko informazioa.

g. Interes orokorreko informazioa.

4. 3. puntuari zehaztu den informazio guztia datuak sexuaren arabera bereizita argitaratuko da Tolosako Udalak, hala dago-kionean.

5. Ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere argitaratuko den dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan.

6. Artikulu honetan azaldu den informazio guztia euskaraz edo ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) argitaratuko da.

8. *artikulua. Udalari eta antolamenduari buruzko informazioa.*

1. Arlo honetan, gardentasunari buruzko gutxieneko betebeharrak honakoak dira:

a) Udalaren organoak, beharrezkoak eta osagarriak, honako hauek adierazita: beraien titularrak (osaera), horiek betetzen dituzten eginkizunak eta horiei aplikagarri zaizkien arauak. Era berean, publiko egingo dira organo bakoitzaren gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiak.

b) Udalean eta gobernu-taldeetan ardura politiko gorena duten pertsonen buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.

c) Publiko egingo dira udaleko gobernu-plana, agintaldiko plana edo jarduera-plana eta bakoitzaren betetze-maila. Agintaldi plana agintaldiaren lehenengo urtean egingo da publiko eta urteko jarduera plana ekitaldi bakoitzaren hasieran argitaratuko da, eta jarduera planaren betetze maila ekitaldi bakoitzaren itxieraren aurretik argitaratuko da.

d) Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.

e) Udalean eta bere menpeko erakundeetan behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.

f) Udal ordezkarien ondasun eta jardueren buruzko urteroko aitorpenak, indarrean dagoen legerian ezarritako eran.

g) Udaleko alderdi politikoei buruzko informazioa.

h) Toki-erakundeko arlo eta sailen antolamendu-egitura eguneratua; berariaz aipatu behar dira zuzendaritzako edo erantzukizuneko lanpostuak, lanpostu horiek betetzeko zer profil behar den eta lanpostu horiek betetzen dituztenek zer ibilbide profesional daukaten.

i) Aholku-organok eta gizarte-partaidetzakoak, haien jarduera eta erabakiak barne.

j) Edonolako erakunde instrumentalak, eta arduradun gorenak zein diren eta haien antolamendu-egitura zer-nolakoa den ere adierazi behar da.

k) Antolamendu-egituren plan eta programak –beren xede zehatzak eta horiek gauzatzeko aurreikusitako baliabideak eta epea identifikatuz–, eta plan eta programen betetze-maila eta

transparencia, así como aquella información que las y los responsables municipales, de oficio o a petición de las entidades representativas de los intereses de la ciudadanía consideren oportuna.

a. Información municipal y de ordenación.

b. Información jurídico-normativa.

